

SEGURTASUN KAMERA HEGALARI KAMUFLATUA

1. IDEIA:

Pandemia honen aurrean seguru sentitu nahi duzu zure burua eremu publikoetan? Eta nola ez, lapurreta, eraso, bortxaketa zein beste indarkeria egoeren aurrean beldurrari agur esan nahi al diozu, behin betiko? Ba hemen daukazu bilatzen ari zaren hori! Venus Security iada zurea izan daiteke!!

Venus Security kamera hegalaria kamuflatua da, biztanleen segurtasuna bermatzea helburu duena. Kamera hori esferikoa da, airean jarduten du, 7cm neurtzen ditu eta goi-teknologiari esker, bere gainazala mugitzen den ingurunearen itxurara eta koloreetara moldagarria da, kamuflatzeko asmoz. COVID-19 birusak sortutako egoerari erantzun bat emateko asmoz sortu da gure produktua.